



## PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	BENTADES IKASTETXEA							Kodea: 014777	
ARLOA / IRAKASGAIA	MATEMATIKA							DATA	2018-2019
MAILA				1. ZIKLOA					
1	ARLOAREN GUTXIENEN HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA								
<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Gainerako zientzietatik eta matematikatik bertatik ateratako problemak, bakarka zein taldeka, proposatzea eta ebaztea hainbat estrategia aukeratuz eta erabiliz ,ebazpidea arrazoituz eta emaitzak interpretatu egoera berrietan aplikatuko dira, gizartean eraginkortasun handiagoz jarduteko.</li> <li>2. Ezaguera matematikoak erabiltzea eguneroko bizimoduko egoeren eta gertaeren mezuak eta informazioak ulertzeko, balioesteko eta sortzeko.</li> <li>3. Natura-eta-kultura-inguruneko forma geometrikoak identifikatzea, horien elementuez, horien arteko loturez eta horietako bakoitzaren ezaugarriez dakiguna erabiltzea errealitatea deskribatzeko.</li> <li>4. Kalkuluak eta estimazioak (numerikoak, metrikoak, etab,) segurtasunez eta konfiantzaz egitea, egoera bakoitzaren araberrako prozedura erabiliz ,eguneroko bizitzako egoerak interpretatzeko eta balioesteko.</li> <li>5. Ikasleen adinaren araberrako hizkuntza naturalaren eta matematika-hizkuntzaren elementuak erabilia (zenbakiak, tablak, grafikoak, irudiak) ,arrazoitzea eta argudioak ematea, argi eta modu koherentean, norberaren pentsamenduak adierazteko eta emaitzak eta ondorioak justifikatzeko eta aurkezteko.</li> <li>6. Informazio-eta komunikazio-teknologiak(ordengailuak, etab.) zuzen erabiltzea, kalkuluak egiteko, informazioa bilatzeko, baita matematika ikasten laguntzeko ere.</li> <li>7. Matematikak eguneroko bizimoduan duen egitekoa aintzakotzat hartzea, matematikarekin dihardutenen moduak eta jarrerak balioestea.</li> <li>8. Matematika gure kulturaren partetzat hartzea, historikoan izan duen eta egungo gizartean duen egitekoa kontuan hartuta, eta landutako matematika-gaitasunak gizartean gertatzen direnak aztertzeke eta balioesteko aplikatzea; esate baterako, kultura-aniztasuna,ingurumena errespetatzea osasuna eta kontsumoa.</li> </ol>									



2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA 1. MAILA		
	1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Zenbakiak: 0tik 29ra.</li> <li>● Batuketak/kenketak horizontalean eta bertikalean .</li> <li>● Buruzko kalkulua.</li> <li>● 10 zenbakia.</li> <li>● Unitatea eta hamarrekoa.</li> <li>● Arra, pausoa eta oina.</li> <li>● Pisua.</li> <li>● Hurbil/urrun.</li> <li>● Goian/behean.</li> <li>● Ezkerra /eskuina.</li> <li>● Aurrean/atzean.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Zenbakiak: 30tik 69ra.</li> <li>● Batuketak/kenketak horizontalean eta bertikalean eramanekin.</li> <li>● Buruzko kalkulua.</li> <li>● Buruketak.</li> <li>● Unitatea eta hamarrekoa.</li> <li>● Asteko eta egunak eta urteko hilak.</li> <li>● Erloju analogikoa eta digitala.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Zenbakiak: 70tik 99ra.</li> <li>● Batuketak/kenketak horizontalean eta bertikalean eramanekin.</li> <li>● Buruzko kalkulua.</li> <li>● Buruketak.</li> <li>● Zenbaki bikoitiak eta bakoitiak.</li> <li>● Unitatea eta hamarrekoa.</li> <li>● Zenbaki ordinalak.</li> <li>● Euroaren txanponak eta billeteak.</li> <li>● Geometria</li> </ul>

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA 2. MAILA		
	1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
	<ul style="list-style-type: none"> <li>● 0tik 400erarte</li> <li>● Zenbaki ordinalak (1etik 10era)</li> <li>● Batuketak eta kenketak bururakoekin</li> <li>● Buruzko kalkulua</li> <li>● Erlojua: orduak, minutuak, segunduak</li> <li>● Dirua: euroak, zentimoak eta billeteak</li> <li>● Luzeera: metroa, zentimetroa eta kilometroa</li> <li>● Buruketak</li> <li>● Segidak, laberintuak,...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● 400etik 800era</li> <li>● Zenbaki bikoitiak eta bakoitiak</li> <li>● Kenketaren froga</li> <li>● Biderketak: 1, 2 eta 3ko taulak</li> <li>● Buruzko kalkulua</li> <li>● Kiloa, kilo erdia, kilo laurdena</li> <li>● Litroa, litro erdia eta litro laurdena</li> <li>● Espazioan orientazioa</li> <li>● Lerro motak</li> <li>● Poligonoak</li> <li>● Zirkunferentzia eta zirkulua.</li> <li>● Buruketak</li> <li>● Kartak kokatzea, kaktusei behatzea,...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● 800etik 1000ra</li> <li>● Bi halako edo erdia</li> <li>● Buruzko kalkulua</li> <li>● Biderketak: 4,5,6,7,8 eta 9ko taulak</li> <li>● Triangeluak aldean arabera</li> <li>● Simetriak</li> <li>● Gorputz geometrikoak</li> <li>● Taulak, barra-grafikoak</li> <li>● Seguru, litekeena, ezinezkoa</li> <li>● Buruketak</li> <li>● Oinatzak bilatzea, bonbillak batzen,...</li> </ul>



3

## EBALUAZIO- IRIZPIDEAK, ADIERAZLEA ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

**EBALUAZIO-IRIZPIDEAK**

1. Eguneroko bizitzako zenbakizko testuetan zenbakiak duten balioa interpretatzea eta adieraztea, eta kopuru txikiei (kontaketa, irakurtzea, idaztea, eta alderatzea eskatzen duten gertaera edo egoeratik ateratakoak) buruzko galdera eta problema errazak formulatzea, hiru zifra bitarteko zenbakiak ordenatzea eta haien posizio-balioa adieraztea.
2. Eguneroko egoera ohikoetan batuketa-eta kenketa-eragiketen bidez oinarrizko zenbakizko kalkuluak egitea, prozedura mentalak, algoritmoak eta nork bere estrategiak erabiliz.
3. Neurketarekin zerikusia duten zenbakizko testu errazak interpretatzea, eta ohiko objektuak, espazioak eta denborak neurtzea unitate ez-konbentzionalak eta konbentzionalak erabilita.
4. Inguru hurbilean duen objekturen baten kokapena deskribatzea, eta baita bera abiapuntu duten lekualdatzeak edo ibilbideak deskribatzea ere, zenbait kontzeptu erabiliz.
5. Inguru hurbilean forma angeluzuzenak, triangeluarrak, zirkularrak eta esferikoak dituzten objektuak eta espazioak hautematea eta ikasleek nork bere erara deskribatzea.
6. Barra-grafikoetan adierazten diren datuen oinarrizko interpretazioa egitea, galderak formulatuz, eta grafikoak irakurtzea eskatzen duten problema errazak ebartziz.
7. Eguneroko bizitzako objektuekin, gertaerekin eta egoerekin zerikusia duten problema errazak ebaztea, problema horietako batuketa-eragiketa eta kenketa-eragiketa errazak hautatuta, eta horiei dagozkien oinarrizko algoritmoak edo beste ebazpen-prozeduraren bat erabiliz.
8. Zenbakiak, kalkuluei, neurriei eta geometriari buruzko problema-egoera irekiak ebaztea eta matematika-ikerketak errazak egitea zenbait estrategia erabilita eta ikaskideek elkarri lagunduta.
9. Matematika-lanetarako jarrera ona izatea, kalkuluak txukun eta ondo antolatuta aurkeztea baloratzea, norberak dituen ahalmenetan konfiantza izatea, eta erronkak eta ikaskuntzarekin zerikusia duten hutsegiteak gainditzeko jarrera izatea.

**KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK**

- Edukiak: %60
  - Edukiak %20
  - Eragiketak %20
  - Buruketak %20
- Prozedurak eta jarrera: %40
  - Etxeko lanak ondo egitea eta ikastea.
  - Garbitasuna eta materialaren zaintza.
  - Egunerokoan parte hartzea eta besteak errespetatzea..
  - Irakasgaiarenganako jarrera.
  - Talde lanetan, modu egokian elkarlan egitea.
  - Euskararen erabilera.